

kal-aditzaren aldakuntzak jaso ditu ta itz batzuek, aítaz aztertuak ere bai.

II.— Altube jaunak dio: euskal-aur-ikastola-lanak ez dirala utzi bear: arazo onetan beti zaitzan egotea on litzakela. Auxe adierazi bear litzaioke «Euskaltzaindiaren Laguntzaileak» bazkunari ta baietz erabaki du Euskaltzaindiak.

III.— Euskaltzaindiaren laguntzaileak iragañi digute beren batzar nagusia Donostian izango dutela datoñen Uztan. Aita Intza izango da Euskaltzaindiaren ordeko.

IV.— Jose Ageñe jauna, len euskaltzain izana, urgazle izendatu degu.

V.— Aita Lhande gure euskaltzainkide maitea, gaxo dagola jakin degu. Zinez atsegabetzen gaitu beñi onek, eta beretzaz geiago jakin bear degu.

Besterik izan ez da otoitzez amaitu degu batzaraldi au.

Donostian, Eusko-Ikaskuntzaren gela nagusiañ, 1934 - ko Garagarilaren 27 - an.

Euskaltzain abek bildu giñan: Azkue maipuru, Urkijo, Eguskitza, Olabide, Altube, Intza, Lakonbe, Etxegarai, Intzagarai. Urgazle jaunak beñiz: Gorostia-ga eta Ormaetxea. Otoitz egin da.

I.— Jose Ageñe jaunaren eskutitz bat irakuñi da. Eskeñak ematen dizkio Euskaltzaindiari bera urgazle, aurreko batzaretan, izentatu zuelako.

II.— Gorostiaga jaunak, darabilkigun iztegi berian ez dauden itz batzuk gogorazten dizkigu. Aben *neologismoak* ipiñi ditugu.

III.— Beste itz beñi edo *neologismoen* eraspenean jardun degu. Ta beste gai batzuek urango batzañaldirako laga-ta, otoitzez amaitu da auxe.

**Donostian, Eusko-Ikaskuntzaren gela nagusian,
1934-ko Garagañilaren 28-an.**

Euskaltzain abek bildu gera: Azkue maipuru, Urkijo, Eguskitza, Olabide, Altube, Lakonbe, Etxegarai, Elissalde, Intzagarai. Urgazle jaunak iru: Ormaetxea, Gorostiaga eta Belaustegigoitia Perderika. Otoitzez asi da.

I.— Eguskitza jaunak adierazten digu itz beñi edo neologismoak nola eratu litezken.

II.— Azkue jaunak bere lan bat irakuñi digu: *Arcaismos lexicales y verbales*. Euskaltzain batzuek oarpenak egin dizkiote.

III.— Urkijo jaunak galdetu du, ea-ezer erantzun bear ote zaion Huarte jaunari *Ignoto vasco que murió en Oñega* dala-ta. Euskaltzaindiak ez daki oñetzaz ezertxo ere.

IV.— Gorostiaga jaunak itz batzutzaz zerbait esan digu.

V.— Ondañuko Udalak bere seme ta gure euskaltzainkide maite zan Domingo Agiñe jaunaren oroitz-